

SEGMENTAZIOA:

Gure aplikazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako ikasleei dago zuzendua. Ikasle hauek, 16-18 urte bitartekoak dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, 30.231 dira Batxilergoko ikasketak burutzen dituzten ikasleak eta Nafarroan berriz, 8.937 dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, 19.251 ikasleek euskaraz (D eredua) egiten dituzte haien batxilergoko ikasketak; 1.364 ikasleek euskaraz eta gazteleraz (B eredua) eta gazteleraz (A eredua) berriz, 9.750 ikasleek burutzen dituzte haien ikasketak. Nafarroan, ikaslegoaren %23,78-k egiten dituzte haien ikasketak D ereduan eta %13,95-ek A ereduan.

Lehen aipatu dugun bezala, gure aplikazioa EAE-ko eta Nafarroako ikasleentzat dago bideratuta; beraz, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez eskaintzen ditu apunteak, azterketa ereduak eta laguntza.

Gaur egun, ikasleek, zailtasunak dituzte ikasketak aurrera eramateko; izan ere, gure ikuspuntutik (ikasleak izanda) Espainiako hezkuntza sistema ez da behar bezalakoa. Azterketetarako ikasten dugu, azterketetarako soilik. Ikasitakoa, berehala ahazten dugu, balio ez balu bezala. Horregatik, ikasleak laguntzen dituen aplikazioa sortu dugu. Ikasketak erraztea oso garrantzitsua da guretzat, etorkizunera begira prestatutako pertsonak edukitzeko. Hau, apunte ezberdinen bidez egiten dugu, prestatutako irakasleek zuzendutakoak; irakasle horiek ere, klase partikularrak ematen dituzte web-cam bidez baita azterketa eredu ezberdinak prestatu.

Hau dena, diru kantitate txiki baten truke lortu daiteke; zure kabuz egitea baino zertxobait garestiagoa baina partikular bat baina merkeagoa.

Espanian, gazteriaren %44a klase partikularretara doa, eta gutxi gora behera, haien familiak 700 euro inbertitzen dituzte ekintza honetan urtero. Hau horrela izateko, familiak ekonomikoki eta sozialki maila ertain edo altukoak izan behar dira eskatzen den diru kantitatearen ondorioz maila honen azpitik dagoen jendearen gehiengoak ezin du hau ordaindu.

Beraz, lehen aipatutako arrazoi guztien gatik, gure aplikazioa sortu dugu.